

Tokiz kanpoko galderak

«Ondo al dago guardia zibil bat hiltzea?» galderaren ondorengo isilune luzea gogoan dut, eta soilik norbere baitara entzuten zen *glup* hori. XXI. mende hasiera hartan, galdera gutxi zegoen hori baino deserosoagoa, are gehiago Filosofia Fakultate hartan, zeinetan irakasle eta ikasle ez gutxi bizi baitzen heriotza, tortura edo atxiloketen mehatxupean eta beste zenbait makurkerien beldurrez.

Deserosoa eta tokiz kanpoko diot, halaxe zelako aukera ideologiko guztientzat. Diskurtso mediatiko nagusiarentzat erantzuna argia zen: ez, noski, gizakiaren duintasuna beste ezeren gainetik dagoelako eta indarkeria oro kondenatu behar delako, datorren lekutik datorrela. Kaleko diskurtso nagusiarentzat, nik korritzen nituen kaleetakoa- rentzat behinik behin, erantzuna argia zen halaber, baina kontrakoa: guardia zibil bat hiltzea zapalkuntza eta indarkeria zabalago eta sako- nago baten kontrako erantzuna besterik ez zen, zilegitasun horretaz jardutea beste indarkeriez jardun gabe tranpa egitea zen. Beraz, zure posizioa zena zela (eta orduan espazio gutxi zen aukera binarioetatik landa), galdera hura erraietan zornatzen ari den pikorta baten moduko- koa zen. Egitea hobe ez zen galdera horietakoa. Baina, jakina, ez ote da filosofiaren egitekoetako bat, hain justu, ustez egin behar ez diren galderak egitea?


Joxe Azurmendi maisua izan zen horretan EHUren Filosofia Fakul- tatean, beti ausartuko ez zinatekeen galdera egitera bultzatzen. Filo- sofiaren historia irakatsi zigun, baina batez ere begirada filosofikoa edukitzen. Ziur aski, jarrera horrek zerikusi zuzena izan zuen Jainko katolikoa kuestionatzera eramane zuen bidaiarekin. Ez zen haren bi- daia izan soilik. Antzeko bidaiak egin zuen, esaterako, fakultateko beste irakasle batek, Alfredo Bayón zenak, gaizki oroitzen ez banaiz domi- niko ohia, zeinaren klaseren batean Azurmendi bera ikusi bainuen,

‘entzule gisa’ joanda. Gaur egun pentsaezina den keinu horrek, hots, irakasle bat beste irakasle baten klasera ikastera joatearen horrek, pentsamenduaren etika oso bat gordetzen du bere baitan, umiltasun eta jakin-min zinezko bat, pentsamendu filosofikorako ezinbesteko ezaugarriak izan beharko liratekeenak.

Jainkoa bezalako entitate bat zalantzan jartzearekin trumilka hasten dira amiltzen, ezinbestez, beste hainbat uste eta sinesmen gotor. Hor-tik berak praktikatzen zuen erlatibismo erlatiboa delakoa, «absolutua-ren ukoa» deitzen zion hori. Ados, Jainko katolikoa hil egin da; baina, kontuz, errazegia litzateke hori beste jainko batengatik ordezkatea. Eta ez dira gutxi, oraindik ere, pentsamenduaren plazan eskaintzen zaizkigun monoteismo alternatiboak, sarri disimuluz sartzen badizkigute ere. Ez alferrik, Azurmendi izan zen, adibidez, komunismo ortodoxoaren tolesak ikusi eta eztabaidatu zituen lehenengoetakoa gurean. Hor zehar ikusten zituen Marxen bertsio ugari Jainko katolikoaren antzekoegiak begitanduko zitzaizkion. Halaxe beste askorekin: indarkeriaren kondenaren atzean ikusten zuen moral absolututik hasita, euskal nazionalismoaren kritika askoren atzean ikusten zuen Espainia gurturaino.

Haren ikasle nintzela, erlatibismo hori zen gehien ernegatzen ninduen gauzetako bat. Gaztetasunaren ajeak izango dira; egiazaleagoa nintzen orduan. Edonola ere, ordutik ere haren erlatibismo erlatibo horren zimurretan jarraitzen dut harekin eztabaidatzen. Erlatibismoa *erlatibo* izateak jada iradokitzen baitu muineko arazoetako bat: erlatibismo orok posizionamendu jakin bat duela abiapuntu, ezinbestez, erlatiboa ez dena. Bere kasuan –ez dut uste ezkutukerietan ibiltzen zenik–, euskal abertzaletasun jakin batetik idazten zuen. Horregatik, abertzaletasunarekin nituen ezinegon eta zalantzak ziren Azurmendi-ren pentsamenduarekin nituenak; eta gaur egun ere, izaten jarraitzen ditudanak. Joxek berak irakatsi zigun begirada kritiko-filosofiko horrek berarekin eztabaidatzen segitzera eraman behar baikaitu. Nekez egin genieczaioke omenaldi taxuzkoagorik.





Aina Lasa Perez. Jakin 269-270 • Zergatik eta zertarako Joxe Azurmendi

Danele Sarriugarte Mochales

Betiereko gazte eroak

Zehatz-mehatz oroitzen dut noiz izan nuen, lehen aldiz, Joxe Azurmendiren berri. Noiz entzun nuen lehenengoz haren izena. Ez nuen entzun etxean, ez nuen entzun nire inguru sozialean, ez nuen entzun ikastolan, ez eta institutuan ere. UEUko graduondoko batean entzun nuen: *Euskal Herriko pentsamendu kritikoa XX.-XXI. mendeetan*.

2012-2013a zen eta nik 23-24 urte nituen; nobela bat idazten ari nintzen, lehendabiziko aldiz hori ere, eta, luzaroan ez bezala, etorkizuna ez zen niretzat zulo barrundaezin bat: gai nintzen nola bizi nintekeen –bizimodu posible bat behintzat– irudikatzeko; aurrean ageri zitzaidan nire-bizitza izan zitekeen zerbait –eta, bidenabar, niretzako moduko Euskal Herri bat–. Ordura arte ihesaldia ihesaldiaren gainean kateatzen ibilia bainintzen: kanpora joan, bertan ezinda, eta ondo ibili, eta arnasa pixka bat hartu, baina beti itzuli; eta kanpora joan berriro, eta beste arnasa pixka bat, bestelako ideiak, bestelako jendeak, baina beti... itzuli.

Joxe Azurmendi aipatzen zuten graduondokoaren antolatzaileek –Alaitz Aizpuruk, Bakarne Altonagak, Andoni Olariagak–; Joxe Azurmendi aipatzen zuten irakasleek –graduondoko hartan ezagutu bainituen, esate baterako, Joseba Gabilondo eta Ibai Atutxa–, Joxe Azurmendi aipatzen zuten nire ikaskide zenbaitek –ni nintzen taldeko gazteena, eta, nik bizi nuen moduan behintzat, ‘politikarekin’ lotura gutxien zuena–.

Joxe Azurmendi aipatzen zuten denek halako miresmen ez-idolatra-baina-erabateko batekin, eta errespetu sakon-sakonez, nik neuk Sara Ahmed eta Iratxe Retolaza aipatzen ditudan bezala.

Azurmendiren lan askori buruz arituko ginen graduondokoan; fijo aipatuko genituen *Demokratak eta biolentoak* eta *Euskaldunak eta espai-*

nolak –ageriko arrazoiengatik–, baina, niri, aldiz, Azurmendiren berri lehen aldiz noiz izan nuen pentsatu, eta *Hitz berdeak* datorkit –poesia egin zuen hastapenetan filosofoak–, eta, batez ere, *Oraingo gazte eroak* datorkit: ez hainbeste liburua bera, baizik eta esaldia, izenburu horrek dakarrena.

–Eten bat jarioan, meandro bat: ez dakit inork nabarmentzen duen, eta niri erreparo pixka bat ematen dit, azalekoa eman dezakeelako, baina agian neronek aipatu beharko dut hain zuzen, pentsamenduaz eta ideiez beste batzuek hitz egingo dutelako. Edonola ere, pentsamenduaren eta ideien mamiak hitzen azalez gauzatzen ditugu, gauzatzen zituen Joxek, eta egiazko talentu bat iruditzen zait, berak bazeukana, eta ez inondik ere hutsala, izenburu catchyak sortzeko –edo hartze– zuen iaiotasuna, haren malgutasun linguistikoa, eta, are gehiago, hizkuntzarekiko zerabilen harreman jolastia, euskara akartonatuaren antitesia. Halako filosofia-molde poetiko bat, akaso–.

«ETArek sorrera inguruko kultur giroaz» ari zen Azurmendi *Oraingo gazte eroak*-en, baina ni, 2012-2013an, militantea izan gabe ere, oso *oraingo gazte ero* sentitzen nintzen; besteen begiradan bereziki.

«ETArek sorrera inguruko kultur giroaz» ari zen Azurmendi *Oraingo gazte eroak*-en, baina, niretzat, esamolde horrek errealitate zabalago bat biltzen zuen eta biltzen du: belaunaldi helduak –ertainak– nola jasotzen duen –eta maiz zalantzan jartzen eta baztertzen duen– belaunaldi gazteak –berriak– proposatzen duena.

1971n argitaratu zen *Hitz berdeak*, Azurmendik 29-30 urte zituela, eta urte berean argitaratu zuen Amaia Lasak *Poema bilduma*, bere lehendabiziko liburua, 22-23 zituela.

A e i o u berri bat.

Nire lehenengo nobelarekin publikotasunera agertzeaz nintzela, bat-batean ez nengoen hain bakarrik: Lasa eta Azurmendi neuzkan, besteak beste, aldameneari; betiereko gazte eroen genealogia bat.

Aitor Sorreluz Aginaga

«Arantzazuk dena eman dit»

Uztailak 3. Goizeko bederatziak. Tren geltokian, lankide ohi bat hurreratu, eta: «Hi, Joxe Azurmendi joan zaigula!». ‘Gizaberetxoa’ izan genuen hizketagai. Neure baitan, Azurmendiren lanean zehar-lerro izan den gizaberetxoaren oihartzunak bete zuen Donostiarako bidea.

Gogoan ditut Joxeren filosofia klaseak, EHUn. Modernitatearen gehiegikeriak seinalatzen zizkigun, eta handik eta hemendik, tresneria intelektualez hornitu gintuen, diskurtso modernoaren zirrikitueta palanka eginez, errelatu hori ikuspegi kritikoz begiratzeko. Subjektu ez den oro objektu da, eta modernitatearen mitoak, teknikaren bidez, mundua objektu erabilgarrien biltegi bihurtu duela zioen Joxek. Ezin gauzek gauza izan, ezin besteek beste izan: dena da objektu, subjektu ahalguztidun batek erabil dezakeen objektu. Errezeloa, gazteegiak ginelan ezer ulertzeko. Niri Arantzazuk eta Bitoriano Gandiagak erakutsi didate, gerora, Azurmendirenganaino iristen.

Gandiagaren *Elorri* olerki-bildumaren hitzaurreak dio: «Bai, giza-bizitza ere halakoxea omen da [elorrria bezalakoxea]: txalkor, zarpail, arantzez josia, mina eta samina alde guztietatik dariola; hala ere, inoiz badaki lore txuri txatxarrak ematen». Espiritualtasun frantziskotarren irudi paregabea. *Elorri* osatzen duten olerkiak Joxek bakan-du, sailkatu eta sortatu zituen, hogeitertekin, 1961ean. Joxek berak onartu zuen lan horrek haren pentsamenduan izandako eragina. Razionalismoaren izenean espiritualtasun frantziskotarra alboratzen eta desprestigiatzeko badugu, ezinezkoa da gizaberetxoaren nozioa bere sakontasunean ulertzea.

Joxek, bere azken elkarriketan, hala zioen (*Arantzazu* 1.024, 29-33):

Gandiagak Arantzazuko bide eta parajeetan praktikatu egin du pentsamendu frantziskotar hori eta horri forma poetikoa eman. Horrela, Gandiagak beste Jainko bat eman digu, Naturarekin ba-

tegina, edo beste begi batzuk Jainkoa sumatzeko. Jainkoaren mito berri bat. Arantzazuren mito berri bat.

Gertatzen da, ordea, «tradizioen mundu zaharra puskatuta, ideal berrien mundu berri bat asmatu ezinda gabiltzala». Ezin elkar begiratu, akaso. Mundu bat erabat desagertu da, baina ez da ordezkorik eraiki. Horren seme-alaba gara, nonbait: «Gizona mixerable da/ [...] Zer haiz ba! ez zekiagu/ begiz begi bata bestea/ begiratzen-eta» (*Olerti*, 1968 III-IV, 28. or.). Joxek hori idatzi zuenean, Arantzazuko frisoa hutsik zegoen; Oteizaren apostoluak errepide bazterrean, botata. «Tiriki, tauki, tauki, mailuaren hotsa. Etsipen kolpe bat da ukaldi bakoitza».

Azken egunak Gandiagarekin liburuan, Joxek dio: «Gandiagaren fedea eta Jainkoa, niretzat, arrotza ez, baina, bere ebidentzia masiboarekin, kasik ikaratzen ninduen zerbait zen. Errealismo ikaragarrikoa» (135. or.). Uste dut liburu osoa Gandiagaren mundu ikuskera, Gandiagaren Arantzazu, arrazoimenaren bidez ulertzeko eta azaltzeko saiakera dela; eta, bide batez, sakoneko Azurmendi ulertzeko gakoa. Horren adibide, Arantzazu altzo gisa nola irudikatzen duen (I. kap.) edo Lucio Muñozen absidearen deskribapena (III. kap.).

Gandiagaren begiradapean ikusten dugun Arantzazu hori esna dago, eta Artaso, lo. «Nik ez dut esnatuko, baina bai maitatu; baina bai darrion lehen arnasatik hartu», dio Gandiagak (*Arantzazu* 517, 139. or.). Artaso-maldako pleguan mila eta mila hitz sakon gordetzen baitira; lurraren sakonean, bide zaharron esaldi luzeetan. Arantzazu, eraikin berri, harri zaharrez eraikia (*Arantzazu* 1.022, 22-23).

Arantzazuk dena eman dit, aitortzen du Joxek (*Arantzazu* 1.024, 32. or.):

Eman, dena. Txikiaren eta pobrearen maitasuna, diferentearen errespetua, adaptatzen jakitea, artearen zaletasuna, etab. etab. Bizitzan gidatu eta poztu nauten balioak Arantzazuk eman dizkit...

Han daude bere errautsak, Arantzazun, Haitzabali begira, Artaso atzean duela. Ondoan, *Hiru gizon bakarka*.

Iñaki Soto Nolasko

Kill Your Idols

Mikel Urdangarinek dioenez, haiena da Joxe Azurmendiren klaserik jaso ez duen Joxe Azurmendiren dizipuluaren lehenbiziko belaunaldia. Aurreko belaunaldikook bi aldiz gara pribilegiatuak. Alde batetik, haren ikasgai magistraletara joateko aukera izan genuelako. Bertan, materiaz harago, pentsatzeko modu bat erakutsi zigun, bizitzako ia arlo guztietarako balio duena (adi, horrek ez du haren postulatu filosofikoekiko adostasuna esan nahi). Bestetik, ondare itzela utzi digu. Ikasle, irakasle, ikertzaile eta pentsalari gazteen belaunaldi berri honetan mamitzen den ondarea, hain zuzen ere. Galdera berriak dituztenak, ondare hori aberasten duten ikuspegi berrien jabe direnak, gureak ez bezalako krisiak dituztenak.

Azurmendik, era berean, herrigintzako militanteen belaunaldi berriak erein ditu. Desbideraketak ekiditeko, hamarkadetan salbatu gaituen sen askatzaileari heltzeaz gain, gauzak korapilatzen direnean –eta gure herri txiki eta zigortuan hori maiz samar gertatzen da–, Azurmendiren testuak berreskuratu ahal izango ditugu. Euskal ikuspegi endogenoa duten idazlanak dira, iparra ez galtzeko.

Norbaitek beste norbaiti koherentzia eskatzen dionean –bere adiera dogmatikoan–, Azurmendiri jarraituz beti izango du modu –intelektualki– kongruentean erantzuteko aukera. Sinisten duena sinisten duela ere, ariketa ondo eginez gero, argudio bat ongi pentsatua eta formulatua dagoen erabaki ahal izango du, zorrotzasuna duen edo erraz eraso daitekeen, eta nola defenda daitekeen jakingo du. Izan ere, Azurmendiren pentsamendua, beste gauza askoren artean, auto-defentsa intelektualerako eskuliburu bat da: txikientzat, zigortuentzat, baztertuentzat, gosetuentzat eta errebeldeentzat.

Eta ez hori bakarrik. Azurmendiri kasu eginez gero, iritziz aldatu ahal izango dugu kameleoi gisa jokatu gabe. Gure ideiak hobetuko ditugu,

galdera berrietara zabalduz eta beste batzuen kezkak kontuan hartuz. Gizaberetxoari kosta egiten zaion arren, hori praktikaren bidez ikasten da. Apalak eta autokritikoak izateko oinarri intelektualak ikas daitezke. Joxek eskuzabaltasun osoz eskaini zizkigun.

Azurmendiren pentsamenduaren abantaila handienetako bat da eman-korra dela eta, aldi berean, ezin dela erraz manipulatu. Kode libreko pentsamendua da, nolabait esateko. Haren ideien sistematik abiatuta, ordea, ezin dira eraiki berak defendatu zituen balioak eta proiektuak zapaltzen dituzten diskurtsoak. Haren ideiekin ezin da neohizkuntza egitera jolastu. Frankismotik eta kontakizunaren batailara arte, badakigu gerra ez dela bakea, askatasuna ez dela esklabotza eta ezjakintasuna ez dela indarra.

Izan ere, Joxeren begirada kritikoak lagundu digu botereak eskaintzen digun guztia berehala ez onartzen. Egitura handientzat ‘-keriak’ direnak herriarentzat ‘-tasunak’ izan daitezkeela ikasi dugu: txikitasuna, zaurgarritasuna, aniztasuna...

Azurmendiri kasu eginez gero, ordea, ez diogu kasurik egin behar. 1983an, Arizmendiari eta kooperatibismoari buruzko tesia idazten ari zen urtean, Sonic Youth taldeak *Kill Yr Idols* kaleratu zuen. Musika klasiko eta operaren maitale, seguruenik Joxeri ez zitzaizkion nota distorsionatu eta mezu gordin haiek gustatuko. Eta, hala ere, entzungo zuen, hausnartu, eta zerbait eraikitzaile aterako zukeen hortik.

Pentsamendu garaikidea ez baita ikasgai soil bat, ikuspegi bat baizik. Horregatik, gazte eroen belaunaldi berriek pentsatzen, galdetzen eta erantzuten dutena Joxek gure kezkak entzun zituen bezala entzun beharko genituzke: errespetuz eta, batez ere, interesarekin.

Hil zaigu, eta idoloek zor zaien errespetu kritikoarekin, joera guztietako dizipuluen artean irakurri eta eztabaidatu beharko dugu Joxeren ondarea. Ez gurtu, ez kopiatu, baizik eta haren irakaspen eta ereduaz baliatu gure bideak eraikitzeko. Euskal Herriaren alde, askatasunaren alde.

Pako Sudupe Elorza

Joxerekin hizketan

Hain neurri laburrean zer esan liteke zutaz, Joxe? Gaur ostirala da; atzo deitu behar nizun, azkenaldian ostegunero egin izan dudana bezala, arratsaldeko bostetan, eta orain, zer da eta, ezin dugunez asteroko solasalditxo egin, Jakinek eskainitako aukera aprobetxatzea pentsatu dut gure arteko harremanari errebasotxo bat emateko. Alde batera, erraza daukat; ez didazu kontrarik egingo; bestalde, lagundu ere ez gauzak zuzen samar gogoratzen, nire oroimenaren okerrak zuzentzen eta hutsuneak betetzen... Baina hala izan beharko du!

Lehenbizikoz Grosen elkartu ginen, Joxe. Etxe batean bizi zineten jakinkideok, solairu batean liburutegia zeneukaten, eta hantxe. Ez nuen elkarriketa grabatu, baina galdetu nizun nola atera zenituen burutan *Zer dugu Orixeren alde* eta *Zer dugu Orixeren kontra* saioak, eta zure erantzunetik gogoan dut kontrastea, dikotomia, oposizioa aipatu zenizkidala. Baserri literatura eta hiri literatura; objektibotasuna/subjektibotasuna; Orixe epikoa eta lirikoa... Nik esan nizun Orixeren gaineko liburu horiek liluratu nindutela –«asko gustatu» esango nizun!–, eta neuk ere gogoia nuela zerbait idazteko, eta, hasteko, Nemesio Etxaniz herrikideari buruz.

Idatzi nuen Nemesio Etxanizi buruzko biografia eta ideologia, eta hain zuzen hori idazteko baliatu nituen gutunak pasatu nizkizun: Nemesio Etxanizek Jokin Zategirekin eta batez ere Andima Ibinagabeitiarekin trukaturako gutunak. Esan nizun gutunak transkribatzeko prest nengoela, eta hitzaurrea eskatu nizun. Idazle moduan heldutasun betean zeunden orduan –55 bat urte–, eta zure oharrek, hitzaurreako baliok behar zuten zorioneko apunteek –beti hala esan izan duzu, Joxe: apunte bitartez idazten duzula!– *Oraingo gazte eroak* saio-liburu aberatsa ekarri zuten fruitutzat, Markos Zapiain eta Luma argitaletxearesker. Ale horri, begira, kariño berezia diot; izan ere, liburuaren atari-

koari nire izen-abizenek ekin zenion, eta hori gutxi ez dela, etxean dudan aleari honako eskaintza laburra idatzi zenion: «Pakori, bihotzez! Joxe Azurmendi», mediku letra azkar-okerreaz idatzia.

Hurrengo, Etienne Salaberri heletarra. Davant, zu eta hirurok. Zurea mamitsuena eta luzeena, eta *Egan*-eko Gillermo Etxeberriak zurea aparte argitaratzea erabaki zuen, eta bi zenbaki eskaini genizkion.

Handik laster, dakizun bezala, Joxe, 50eko hamarkadako euskal literaturako testuak bildu eta aztertzeari ekin nion. Pasatzen nizkizun kapituluak, eta oharra egiten zenizkidan. Ez zinen zorrotza; ez zenidan zuzenketa asko egiten. Hortik aurrera, gure arteko harremana estutu egin zen. Zuk te beltza hartzen zenuen, eta nik kafe ebakia Donostiako kafetegi batean, eta hitz eta pitz aritzen ginen. Gustatzen zitzaidan zuri entzutea. Batzuetan apuntatu ere bai zuk esandakoak. Solasaldi horietako batean galdetu nizun zein idazle zeuden ahaztuak zuen garaian erreferenteak izandakoak, eta erantzun zenidan: Eusebio Osa, Emilio Lopez Adan eta Txillardegi.

Eusebio Osarena argitaratu zenean, gogoan izango duzu Eusebioren alargun Arantxa Uribarrik afaria eskaini zigula Gasteizen, 2013an, eta dozena erdi bat lagun elkartu ginela. Zein gustura aritu zinen hizketan, gainerakoek adi entzuten genizularik. Idazteko orduan ez dakit nola pasatzen zenuen, baina hizketan egitea ere gustatzen zitzaizun, eta bazenuen zer kontatua, bazenuenez!

Ez dut triste amaitu nahi. Zalantzak izan nituen 2019ko abenduko omenaldira bizirik iritsiko ote zinen. Medikuek esaten zizun bezala, bazenuen aingeruren bat, heriotzan amiltzekotan zinela, heldu eta bizitara ateratzen zintuena. Baina inor ez da betirako, eta heldu zaizu joateko ordua. Bai, entzuten ari natzaizu: noiz hasi behar duk idazten? Nire moduan, Joxe, zenbat euskaldun idaz-zale bultzatu dituzu idaztera, haien testuak irakurritz? Euskal saiogintza lantzea lantegi apal bezain mortal ederra zela zenioen. Beti gogoan, Joxe!